

35. FITXA. 2022ko laguntzak, landa-eremuetan merkataritza-jarduera bultzatzeko

Nori zuzenduta: Toki erakundeak: **5.000 biztanle arteko udalerriak** / Eskualdeak eta beste toki erakunde batzuk, **5.000 biztanle baino gutxiagoko** batez besteko sinplea dutenak

Sartzeko esteka: [Landa eremuak](#)

Erreferentziazko arauak: [BOE](#), ICT/566/2022 Agindua, ekainaren 15koa

Eremuak: Merkataritza toki erakundeetan

Zenbatekoa: 15.023.500 €

Aurkezpen-amaiera data: 2022/08/05

Laburpena

Laguntza-lerro horiek **13. osagaian** daude jasota, "**ETEak bultzatzea**" izenekoan, 4. inbertsioan: "merkataritzaren sektorea bultzatzea". Helburu nagusia da **5.000 biztanle arteko udalerrietan merkataritza-jarduera eta banaketa indartzea**, batez ere jendez hustuen dauden edo biztanleria-dentsitate txikiagoa duten eremuetan, ekintza hauei erreparatuta: **egungo teknologiak baliatzea; bertako kohesio ekonomikoa eta soziala sustatzea; enplegua sortzea eta udalerrien, saltegien eta bizilagunen arteko sinergiak sortzea; produktuak kontsumitzea eta entregatzea erraztea**. Jarduketa horiei esker, kalitatezko merkataritza-eskaintza mantendu ahal izango da eta, biztanleriaren hornidura ziurtatzeaz gain, kontsumitzailea bere eragin-eremuan erakartzeko gai izango da; funtsezkoa baita biztanleria finkatzeko eta jendez hustutzearen aurka borrokatzeko.

Ildo horretan, **txikizkako merkataritza sektorea eguneratzera eta modernizatzen bideratutako jarduketak** garatzen dituzten proiektuak diruz lagundu nahi dira, sektorea kontsumo-ohitura berrietara egokitze aldera. Saltegietan jasangarritasuna eta efizientzia hobetzen, eta birziklapena eta hondakinen berrerabilpena sustatzen lagunduko duten **teknologia** eta irtenbide **berrien ezarpena** sustatzea; eta bi arlo horietan **prestakuntza eta sentsibilizazioa** sustatzea, eta **landa-eremuetan** hornidura eta **kalitatezko merkataritza-eskaintza** bermatzea.

Jarduera-lerroak

- **Landa-merkataritza digitalki eraldatzeko** proiektuak, kanal orotako merkatua eta erosketa-esperientzia hobetzeko, merkataritza-eskaintza sustatzeko eta ikusgai jartzeko, tokiko kontsumoa bultzatzeko bidean.
- Udal-azokek, merkataritza-guneek eta egonekoak ez diren azokek okupatutako eremuetako instalazioak, horien irisgarritasuna, ekipamendua eta egokitzapena **hobetzeko eta berregokitzeko proiektuak**, bai eta horien inguruko eremuetarakoak ere.
- Merkataritzak egiten dituen **intsumoen kontsumoa murrizteko** proiektuak eta horiek **ingurumena errespetatzen duten alternatibekin** ordezkatzeko proiektuak.
- **Gaitasun teknologikoen inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza.**

Onuradunak

Honako **toki-erakunde** hauek jaso ahal izango dituzte ezarritako laguntzak:

- **5.000 biztanle arteko** udalerriek. Udalerri batek laguntza eskabide bat aurkeztu ahal izango du eskatzailearen inguruko beste udalerri batzuetan gauzatuko den proiektu baterako, baldin eta jarduketa planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea 5.000 biztanletik gorakoa ez bada. Udalerri hori izango da onuradun bakarra, betiere proiektua gauzatzeko beharrezko baimenak baditu.
- **Probintziek eta uharteek**, probintzia- eta foru-aldundien, **kabildoen eta uharteko kontseiluen** bidez, betiere, hura osatzen duten udalerrietako biztanleriaren **batez besteko sinplea 5.000 biztanletik beherakoa bada**. Udalez gaindiko onuradunek proiektu bakar gisa aurkeztu beharko dute hainbat udalerri eragiten dien proiektua, eta proiektu hori gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko dira.
Hainbat udalerri biltzen dituzten eskualdeek, baldin eta jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea 5.000 biztanletik beherakoa bada.
- Hainbat udalerri biltzen dituzten beste erakunde batzuek
- Udalerrien elkarteek, baldin eta soilik toki erakundez osatuta badaude, edo, gutxienez, toki-erakunde batek osatzen baditu eta toki erakundeei esleitutako zerbitzu edo eskumenetako bat emateko sortu badira; horiek bere nortasun juridikoa justifikatu beharko dute (adibidez, partzuergoek). Aurretik aipatutako edozein kasutan, betiere jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea 5.000 biztanletik beherakoa bada.
- Udalerrien mankomunitateek, baldin eta jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea 5.000 biztanletik beherakoa bada.»

Onuradunak proiektuaren % 100 azpikontratatu dezake. Kasu horretan, alderdiek idatzizko kontratu bat egin beharko dute, eta emakida ebatzi aurretik aurkeztu beharko da.

Gastuetarako aldi hautagarria

Gastuetarako aldi hautagarria deialdiaren laburpenean zehaztuko da.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

- Finantzaketaren xede izateko aurkezten diren inbertsio-proiektuak **lurralde nazionalen gauzatu beharko dira** eta, **gutxienez, honako balioa izan beharko dute:**
 - 250.000 € aldundi, kontseilu eta uharteko kabildontzat.
 - **100.000 € eskualdeentzat eta eskualde-kontseiluentzat.**
 - **50.000 € 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat.**
- Proiektua **elkarrekin finantzatu** ahal izango dute laguntzaren onuradunak eta kokatuta dagoen autonomia erkidegoak, eta ekarpen hori proiektuaren aurrekontu finantzagarriaren **% 40raino** iritsi ahal izango da.
- **Eman beharreko finantzaketaren zenbatekoa, gutxienez**, finantzagarritzat jotako proiektuaren aurrekontuaren **% 60 izango da eta, gehienez, % 100**, gehienez ere 500.000 euroko dirulaguntzara iritsiz.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Programaren esparruan diruz lagundu daitezkeen proiektuek honako hauek hartuko dituzte barne:

- **Eraldaketa digitalera** bideratutako gastuak:

- Inbertsioak: landa-eremuetan kokatutako denda fisikoa eta egonekoa ez den denda duen merkataritza-sektorearen salmentaren funtzionaltasunak sartzeko, mantentzeko edo

hobetzeko, negozio-ereduak kanal orotakoak izatea sustatzen duten, eta bezeroek ingurune digitalean erostean duten esperientzia hobetzen duten kanal digitalen bidez.

- Merkataritza-jarduera sustatzea. Horretarako, tokiko kontsumoa sustatu eta bultzatzen duten, eta merkatua animatzen duten kanpainak egingo dira sare sozialetan, aplikazioetan edo toki-erakundearen web-orrian.
- Publizitatea, komunikazioa eta ikusgaitasuna hainbat bitarteko edo euskarri digitalean, teknologia berriak erabilia.
- Saltegien eraldaketa digitalen premiei erantzuten dieten beste inbertsio batzuk, beren udal-barrutiaren esparruan.

→ **Saltegia eraldatzearekin** lotutako gastuak:

- Udalerrian funtsezko merkataritza-jarduera sortzea edo mantentzea, haren hornidura bermatzeko. Saltegi berri bat ezartzea edo lehendik dagoen bat hobetzea.
 - || Saltegi berri bat eraikitzeke lanak. Saltegiaren jasangarritasuna eta energia-efizientzia hobetuko duten eta irisgarritasuna bermatuko duten elementuak sartu beharko dira.
 - || Lehendik dagoen saltegi bat eraberritzeko edo egokitzeko obra.
 - || Saltegiak eta espazio berean garatzen diren gainerako zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten behar den merkataritza-ekipamendua erostea.
 - || Ez dira diruz lagunduko merkataritza-jarduera COVID-19ra egokitzearekin lotutako jarduerak.
- Egonekoa ez den merkataritzaren eta merkaturatze-kanal laburren eraldaketa digitala; batetik, eskaintzaren eta eskariaren kudeaketa; eta, bestetik, bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremana hobetuko duten ekintzak bultzatuz (hainbat euskarri digital erabiliz), eta banaketa-ibilbide eraginkorragoak diseinatzeko aukera emanaz.
- Udal azokek, merkataritza guneei eta egonekoak ez diren azokek okupatutako eremuetako instalazioak, irisgarritasuna eta egokitzapena, eta horien alboko eremuetakoak hobetzeko lanetan inbertitzea.
- Bezeroek produktuak erosteko eta ordaintzeko prozesuan teknologia berriak sartzea, saltegietan ilarak eta pilaketak saiheste aldera; eta baita bezeroei eskaintako ordainketa moduak eguneratzea ere.
- Produktuak saltegia zabalik dagoen orduetatik kanpo, edo banatzeko ordutegietatik kanpo, entregatzeko eta itzultzeko modalitate berrietan inbertitzea. Zerbitzu horiek abian jartzeko saltegietako espazioetan egiten diren lanekin eta berritze lanekin lotutako gastuak diruz lagunduko dira, hala badagokio.
- Landa-eremuetako merkataritza-eskaintzaren seinaleetika integratua.

→ **Jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularrarekin** lotutako gastuak.

- Saltegiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan erabilera bakarreko produktuen kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordeaz ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzeko inbertsioak.
- Irtenbide teknologikoak abian jartzea, saltegietan energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko; prozesu ekoeraginkorrak ezartzea, eta hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea.
- Prozesu ekoeraginkorrak egitea eta abian jartzea, hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira eta abar) behar bezala bereizteko eta, ondoren, birziklatzeko eta balioztatzeko.
- Hondakinak behar bezala birziklatzeko elementuak eskuratzea: paperontziak, edukiontziak, etab.
- Bide publikoa eraldatzea, CO₂ jasotzen duten zoladura ekoaktiboek eta fotokatalitikoek bidez.
- Bestelako jarduketak eta irtenbideak, jasangarritasuna, klima-aldaketaren aurreko egokitzapena eta negozio-ereduaren efizientzia areagotzera bideratuta daudenak, eta ekonomia erresiliente baterantz eta karbono gutxikorantz aurrera egitea ekarriko dutenak. Horretarako, hondakinen sorrera murriztuko eta produktuen berrerabilera eta ekonomia zirkularra sustatuko da.

→ **Hornidura-kateari eta trazabilitateari** lotutako gastuak:

- Teknologia berriak erabilia, tokiko edo hurbileko hornidura- eta komunikazio-sareak sortzen dituzten proiektuetan inbertitzea, baldin eta honako eragile hauek guztiak edo batzuk barne hartzen badituzte: txikizkako merkataritza, bertako ekoizleak eta horiekin lotutako zerbitzuen hornitzaileak. Bidalketen informazioa denbora errealean prozesatzeko eta kudeatzeko tresnak sartzen dira.
- Erosketen eta salmenten erregistroa digitalizatzeko euskarri informatikoa, eta gorabeheren erregistroa.
- Etiketatzeko teknologia adimendunak
- **Sentsibilizazio- eta prestakuntza-gastuak:**
 - Sentsibilizazioa eta prestakuntza teorikoa eta praktikoa, merkataritzan tresna digitalak, Marketin Digitala, eta Internet bidezko salmentarekin lotutako datuen ustiapena eta analisia erabiltzeko eta kudeatzeko, horretarako aukeratutako bidea edozein dela ere.
 - Prestakuntza, sentsibilizazioa eta kanpainak, merkataritzaren sektoreko negozio-ereduan ekonomia zirkularreko, birziklatzeko eta produktuak berrerabiltzeko estrategiak sustatzeko.
 - || Jardunaldiak egiteko guneen alokairua.
 - || Altzariak eta jardunaldiak egiteko behar diren ekipamenduen alokairua.
 - || Jardunaldiak egiteko hirugarren bat azpikontratatzearekin lotutakoak, baldin eta hirugarrenarekin azpikontratutako jarduerak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 80, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoa betez. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jardura bere kabuz egiteagatik egin behar dituen gastuen kontratazioa.
 - || Hizlarien ordainsariak:
 - Inola ere ez dira diruz lagunduko bertaratuentzako ekipamenduak edo materiala, *merchandisingari* lotutako gastuak, eta tailerrak edo jardunaldiak egin aurretik sektorearen beharrak ezagutzeko egin daitezkeen gastuak.
- Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk.
 - Dokumentu honen 2. atalean ezarritako xedea duten WiFi sareak ezartzea.
 - Teknologia berrien bidez erostearen esperientzia hobetzen duten merkataritza-eskaintza —eta antzeko beste sektore batzuk— hobetzeari eta ikusgai jartzeari lotutako jarduerak.
 - Landa-eremuetako merkataritza-eskaintzaren seinaleetika integratua.

Balorazio-irizpideak

- **Hainbat motatako inbertsioak** dakartzaten proiektu integralak. (0-10 puntu).
- Jarduketan **onuradun izan daitezkeen saltegien ehunekoa** onuradunaren lurralde-mugapean dauden saltoki guztiei dagokienez (0-5 puntu).
- Udalerri gaitzeko proiektuak, **udalerrri asko** biltzen dituztenak, lurralde-inpaktu handiagoa dutenak eta trakzio-izaera dutenak. Zenbat eta udalerrri gehiagok esku hartu, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa (0-15 puntu).
- Diruz lagundu daitezkeen ekintzetako bat ezartzen den **toki erakundeko edo toki erakunde gehienetako biztanleria**; kontuan izanik **biztanle gutxien dituzten udalerriei emango zaiela puntuaziorik onena** (0-5 puntu).
- **Aurkeztutako proiektuaren kalitatea**: proposamenaren bideragarritasun tekniko-komertziala eta ekonomiko-finantzarioa (0-5 puntu):
 - Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena (gehienez 2 puntu)
 - Proposamenaren egokigarritasuna, konpondu nahi den arazoari eta/edo beharrari irtenbidea emateko (gehienez 3 puntu).
 - Aurreko bi irizpideen konbinazioagatik (5 puntu).
- Proiektuaren gaitasuna, hainbat udalerritako saltegien artean salmentei buruzko **sinergien sorrera** sustatzeko eta baterako ekintzak egin daitezen sustatzeko (0-5 puntu).
- Laguntza eskabidean Europar Batasuneko MRRaren oinarriekin, Espainiako PRTRarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta dauden **jarduketaren kopurua**. Irizpidea **jarduketa bakoitzeko puntu batekoa** izango da. (0-10 puntu).

- Proiektuak **jasangarritasunari** eta saltegietan **teknologia berriak ezartzeari eta erabiltzeari** egiten dion ekarpena (0-5 puntu).
- Proiektuak **enplegua / belaunaldi-txandaketa sortzeko** duen gaitasuna, Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua handitzeko potentzial gisa ulertuta (0-5 puntu).
- Proiektuak udalerriko **merkataritza-eskaintza dinamizatzeko, eguneratzeko eta aberasteko** duen gaitasuna (0-5 puntu).
- Proiektuen gaitasuna, sektorean **berrikuntzak egiteko eta produktibitatea hobetzeko** (0-5 puntu).
- Merkataritza-jarduera duten **bide publikoetan inbertitzea** eta irisgarritasuna hobetzea (0-10 puntu).
- Baloratu egingo da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatutako ideia-lehiaketetan irabazle edo hautatuak izandako ideietako batzuk sartzeari (5 puntu).
- **Toki erakundeak edo kokatuta dagoen autonomia erkidegoak edo hiri autonomoak** proiektua **finantzatzeko** egindako ekarpena baloratuko da, baldin eta ekarpen horiek, gutxienez, proiektuaren kostuaren % 10 gaitzen badute. **Puntuazioa handiagoa izango da baterako finantzaketaren ehunekoa zenbat eta handiagoa izan** (0-10 puntu).

Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte.

Bestelako informazioa

Argibide gehiago:

<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/mercados-sostenibles-zonas-rurales/DescripcionGeneral/Paginas/Index.aspx>

Izapidetze elektronikoa derrigorrezkoa izango da prozeduraren fase guztietan. Laguntza lortzeko eskabideak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusira bidali behar dira, hura baita prozedura antolatu eta bideratzeko organo eskuduna. Eskabide-orriak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Laguntzen Atarian (<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas>) bete eta aurkeztu ahal izango dira, eta han egongo dira beharrezko bitarteko elektronikoak.